



ALBISTE TXAR BAT

—Mugi, Onin, iristear daude-eta!

—Ez da nire errua, Erik. Ezin diot eskatu labeari bizkorrago ibiltzeko.

—Ba, a ze kaka. Zergatik hainbeste denbora? Gero bero-bero egongo dira eta min emango digute sabelean —kexatu zen nire neba.

Urduri geunden. Gurinez eta eztiz egin genituen galletak ez zeuden prest oraindik. Eta lagunak berehala etorriko ziren, gurekin merientatzera gonbidatu genituen-eta, eta baserriko lorategian jolastera.

DIN-DAN.

—Iritsi dira! —oihukatu zuen Erikek aterantz korrika.



Barre egin nuen. Sara inguruan dagoenean, oso urduri jartzen da.

Aimar eta bera ziren. Ainara erosketak egitera joana zen bere gurasoekin. Galleta batzuk gordeko genizkion. Txokolatezko pipitak dituztenak ikaragarri atsegin ditu.

Bueno, nik ere bai.

Eta Erikek.

Eta Sarak.

Eta...

Nori ez zaizkio gustatzen txokolatezko galletak?

—Mmmm, ze usain ona. Galletak egin dituzue? —esan zuen Aimarrek sudurra labera hurbilduz.

—Laster izango dira prest —azaldu nion, galletetei nabaritzen hasia zitzaien urre kolorea ikusita.

—Itxura bikaina dute —esan zuen Sarak.

—Baina itxaron egin beharko da. Bero daudenean ezin dira jan —penatu zen Erik.

—Zergatik ez? —galdetu zuen Aimarrek.

Erikek burua hazkatu zuen.

—Ez dakit. Hori esaten du gure amamak. Zer iruditzen zaizue galletak hoztu bitartean mami egiten badugu?

—Primeran!

—Goazen esne bila.

—Nora?

—Zatozte, ikusiko duzue!

Bi ardi ditugu. Bi bakarrik, baina jende gehienak dituenak baino gehiago dira. Zuek zenbat dituzue? Guk bi urte genituenean jaio ziren Txuritxo eta Beltxiña. Arantzak oparitu zizkigun, erreka bestaldeko baserrian bizi den artzainak. Bi artile-bola ziren, bat beltza eta beste zuria. Zainduko genituela hitzeman genion, eta horixe egiten dugu. Uda iristen denean, Urkiolako larreetara igotzen dira herriko beste ardi batzuekin batera. Gainerako hilabeteak etxean igarotzen dituzte. Bueno, etxean ez, artegian baizik. Eta haraxe gindoazen.

—Txuritxo eta Beltxiña jeztera gatoz, amama
—esan nuen, gure amona egurrezko etxolako atean ikustean.

Amamaren aurpegiak ez zuen ezer onik iragartzen. Begiak kezka betetik zeuzkan, eta ezpainetako irribarrea desagertua zitzaion.

—Zer gertatzen da, amama?



Erantzun aurretik egin zuen hasperena entzunda, aise susmatu genuen oso gaizki zihoala zerbait.

—Txuritxo...

Erik arineketan joan zen ardiarengana. Hura ze zuen kuttunena. Berak jarri zion izena jaio zenean, zuri-zuria zelako. Haren ahizparen izena, berriz, nik hautatu behar izan nuen.



Eta, beltza zenez... Beltxiña!

Txuritxo lurrean etzanda zegoen, begiak itxita, eta nekez hartzen zuen arnasa. Erikek ferekatu zuenean ireki zituen begiak.

—Oso gaixo dago —azaldu zigun amamak—. Zerbait egiten ez badugu, hil egingo dira Txuritxo eta Txurixoren kumea.

—Txurixoren kumea? —galdetu zuen Sarak.

Amamak eskuaz laztandu zuen ardiaren sabela, egunetik egunera gero eta biribilagoa.

—Txuritxo ama izango da. Egun gutxi gertzen zaizkio erditzeko. Bizpahiru gehienez, nik uste.

—Salbatu egin behar dugu! —oihukatu zuen Erikek. Begiak malkoz dizdizka zeuzkan.

—Zaila da —adierazi zigun amamak—. Erraz aurkitzen ez den landare bat behar dugu.

—Zein, amama?

—Azken elurrak urtzen direnean hazten den bat. Sanjose-lorea deitzen diogu, edo udaberri-lorea. Horia da, eta oso petalo hauskorak ditu.

Garai batean aise topatzen zen Anboto gainean, baina klima-aldaketa dela-eta gero eta elur gutxiago egiten du. Aurten ez du maluta bakar bat ere bota. Ez dugu sanjose-lozerik aurkituko.

—Eta ez dago ardia sendatzeko beste modurik? —galdetu zuen Sarak.

Gure amonak ezetz egin zuen buruaz.

—Sanjose-loreak dira nire edabearen osagai nagusia. Haiek gabe, ezingo dut Txuritxo salbatu.

—Zuen ama zientzialaria da. Bururatuko zaio zer edo zer —esan zuen Aimarrek.

—Egia da! —bota nuen nik.

—Ziur baietz! —gaineratu zuen Erikek.

Amama Txuritxorekin utzita, baserrirantz abiatu ginen lasterka. Bidean, gure aitarekin egin genuen tupust; erlauntzetatik zetorren, bere astronauta-jantzia soinean.

—Nora zoazte halako presaz? Ez duzue dastatu nahi jaso berri dudan ezta?

—Geroago. Eskerrik asko, aita!

Eriki eta bioi izugarri gustatzen zaigu gure amaren laborategian sartzea. Tira, berez ezin gara nahi dugunean sartu. Ez daukagu ateko giltza, eta, beraz, beti sartu behar dugu amarekin. Tina du izena. Bilbon egiten du lan, beste hainbat zientzialarirekin batera, baina atsegin du etxean ere probak egitea. Laborategia, kanpotik, beste edozein gelaren modukoa da, gure logela edo jangela bezalakoa. Baina, atea ireki eta kolore distiratsuko likidoz beteriko kristalezko tutu horiek guztiak ikustean, berehala nabaritzen da leku berezi bat dela.

—Uau! Gargamelen gaztelua dirudi... —oihukatu zuen Sarak.

—Edo sorgin gaizto baten etxea —gehitu zuen Aimarrek.

Erik eta biok barrez lehertuko ginatekeen, baina une hartan ez genuen algaraz hasteko inolako gogorik, Txuritxo hain gaixo izanda.


—Kaixo. Zer moduz galletak?

Gertatzen zena kontatu genionean, berehala desagertu zen amaren irribarrea.

—Larria dirudi... —esan zuen pentsakor—. Itxaron, ea zerbait aurkitzen dudan. Akaso izango dut balioko digun zerbait.

Une batez arinduta sentitu ginen. Haurren bi-ziak salbatzeko txertoak asmatzen dituen zientzialari batek erraz aurkituko zuen gure arazoarentzako konponbidea.

Gai misteriotsuz beteriko flaskoen eta saio-hodien artean bilatzen zuen bitartean, guk isilik jarraitu genion.



—Toki hau ikaragarria da! —Sara kristalezko hodi bati begira zegoen; tutuaren gainean flotatzen, arrosa koloreko hodei bat ageri zen.

—Ama, egin dezaket arrautzen trukoa? —galdetu zion Erikek.

—Noski. Zatozte, mahai honetan prestatuko dizkizuet osagaiak.

Sara eta Aimar nire nebarengana gerturatzen ikustean, barre egin nuen neure baitan. Berehala egingo zuten ospa ziztu bizian. Ni ahalik eta urrutien geratu nintzen.

Erikek, harri-koxkor berde batzuk likido garden batean sartu, eta berotzen jarri zituen. Hasieran burbuila batzuk besterik ez zen ikusten, baina handik gutxira usain nazkagarri bat hedatu zen.

—Hau kiratsa! —kexatu zen Sara—. Badirudi norbaitek lapiko bete babarrun jan duela.


—Arrautza ustelen usaina dago! —oihukatu zuen Aimarrek sudurra estaliz.

—Tira, Erik, nahikoa da. Kirats hau jasanezina da —esan nuen, eta leiho bat ireki nuen laborategia aireztatzeko.

Nire neba barrez lehertu beharrean zegoen.

—Erik... —egin zion errieta gure amak, bere gauzen artean bilatzeari utzi gabe.

—Nola lortu duzu hain usain txarra? —jakin nahi izan zuen Sarak kiratsa desagertzean.





—A, bi osagai nahastean gertatzen den erreakzio kimiko bat besterik ez da —azaldu zuen Erikek guztiz oilartuta. Orduan bai, benetako ahaleginak egin behar izan nituen barreari eusteko.

—Uste nuen sanjose-lore lehor batzuk gordeak nituela nonbait —esan zuen gure amak tiradera batzuk miatuz—. Baina badirudi ezetz... Mendira igo beharko dugu.

Bat-batean, dena galduta zegoelako susmoa izan nuen. Laborategi hartan ezin bagenuen aurkitu Txuritxoren gaixotasunarentzako irtenbidea, ez genuen sekula lortuko.

—Amamak dio aurten ez direla atera —esan nion. Amak ezpainak zimurtu zituen.

—Klima-aldaketa madarikatua. Gizakiok planeta kutsatzeari uzten ez badiogu, inor ezingo da bertan bizi. —Mapa bat hartu, eta mahai gainean zabaldu zuen—. Ikus dezagun... Lekuren batean aurkitu behar ditugu lore horiek.

—Oso urrun joan beharko da. Ez dakit garaiz itzuli ahal izango garen... zera... Txuritxo... —hasi zen Erik. Oso ahots tristea zuen.

—Jakina baietz! Behar den lekura joango gara

eta garaiz itzuliko gara Txuritxo sendatzeko —
moztu nion.

—Badakit! —erabaki zuen gure amak hatz bat
mapa gainean jarriz—. Larrunera joango gara,
Pirinioetako lehenengo mendira. Han elurra bo-
tako zuen, ziur.

—Iujuuu!

—Gu ere joan gaitezke? —galdetu zuen Aima-
rrek. Sarak ere irrikaz itxaroten zuen erantzuna.

—Noski. Zenbat eta begi gehiago, orduan eta
azkarrago aurkituko ditugu loreak.

—Milesker, Tina!

—Ainarari deituko diot. Honezkero bukatuko
zituen erosketak, eta utziko diote etortzen —
erabaki nuen, korrika telefonoaren bila abiatuz.

—Nik motxila prestatuko dut —iragarri zuen
Erikek.

Eta halaxe hasi zen asteburu hartako abentura,
gutako inork espero baino askoz ere zirrargarriagoa.



TRENEZ MENDIRA

—Iritsi gara. Azkar ibili behar dugu, trena irte-
tear da-eta —iragarri zuen gure amak, baserriz
beteriko auzo batera iritsi ginenean.

—Ze tren? Ez al gindoazen mendi batera? —
galdetu zuen Erikek.

Pinttok zaunka egin zigun maletategitik. Men-
di-kontuak aditu orduko, poz-pozik jartzen da.

Nik ere ez nuen tutik ulertzen. Ze tren eta ze
tren ondo?

Ainarak barre egin zuen, eta bere tableta era-
kutsi zigun.

—Larrungoa kremailera-tren bat da. Aldapak
igotzeko prestatuta dago. Oso denbora gutxian
eramango gaitu gailurrera.